

HAURTZARO ARLORAKO MATERIALA

“ERDU - TE INVITO”

1. Sarrera (oinarriak)

- Kanpaina honetan enplegu inklusiboa nabarmendu nahi izan da, eta “komunitate abegitsuaren” ideiarekin jarraituz, inklusioa sustatzen duen komunitatea izaten irakatsi nahi dugu, pertsona guztion gaitasunen garapenean lagunduz. Harrera-komunitate batek prozesuetan laguntzen du eta pertsonen gorabeherai arreta ematen die.
- Ekonomia solidarioa beste ekonomia mota bat da, ekonomia soziala, elkarrekin lantzen den ekonomia, pertsonen duintasunaren ikuspegitik enplegu inklusiboa sustatzen duena, pertsona guztien garapena kontuan izan eta zailtasunak dituzten pertsoneri laguntzen dieten komunitateak eraikitzeko xedea duena.

2. Dinamika

Haurrei lamina eman eta bi irudien arteko zazpi desberdintasunak aurkitzeko esango diegu. Taldeka edo banaka egin daiteke.

Zazpi desberdintasunak:



Behin aurkituta, irudian ikusten dugunaren gainean hausnartuko dugu:

- Zer ikusten da irudian?
- Zein lan agertzen dira irudian? (Bideratzailearentzat: Pertsonen beharrezanean erantzuten dieten enpleguak: Jatekoa, arropa, zaintza, etxebizitza, aurrezkiak... pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia)
- Ba al dago bakarrik ari den pertsonaren bat? (Bideratzailearentzat: Sarean lan egitearen garrantzia, lankidetzan eta ez lehiaketan, pertsoneri laguntza emanez eta zainduz...)
- Nola uste duzu zaintzen dutela lan horiek natura? (ingurumena, kontsumo arduratsua)

Ekonomia solidarioa eta horren inguruko balioak zer diren azalduko zaie. Nola lortu dezakegun bazterkeria edo zailtasun egoeran dauden pertsonen lana lortzeko aukerak izatea, eta horrekin komunitate osoari onura ekartzea (herria, auzoa...). Azalpenaren ostean, denbora bat eman ahal zaie beren ustez irudian falta dena marrazteko. Marrazkia koloreztatu ere egin dezakete. (Bideratzailearentzako gida kontsultatu).

3. Otoitza

Dinamikan partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

Jauna,
Lanik gabe dauden
Eta bizitzeko,
jateko edota janzteko lain ez duten
Familiez oroitzeko eskatu nahi dizut.
Irakatsi guri
Nola partekatu daukaguna,
Eta ireki gobernu
Eta enpresen bihotzak,
Lana eman dezaten.
Lagundu iezaguzu gauzak hobetzen.
Aita, konfiantza daukagu zugar.



BIDERATZAILEAREN GIDA

Dinamikaren helburua da hurrek lan duin eta inklusiboaren inguruko hausnarketa egitea, ekonomia eredu sozial eta solidario bat irudikatzea. Enplegu duin eta inklusiboa sustatzeko ekimenen aspektu eta balioetako batzuk:

- Onura soziala, pertsonen garapena eta bizi kalitatea.
- **Ondasun eta zerbitzu onuragarrien** garapena, pertsonentzako, ingurumenerako eta gizartearentzako kaltegarriak direnak alboratuz.
- **Enplegu duin, bidezko, dezent eta inklusiboen** sorkuntza.
- **Autonomia, sormena, parte-hartzea, erantzukidetasuna, lankidetzeta eta aukera berdintasuna.**
- **Bidezko soldata proportzionalak.**
- **Ingurumen iraunkortasuna** zaintzea.
- Babesgabetasun egoeran egoteagatik laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen garapena bideratzea, honakoen bidez: prestakuntza, orientazioa, enpresen bitartekaritza, autoenplegua eta bide-laguntza.
- **Irabazi asmorik gabe**, irabaziak enplegu sorkuntzara, jarduera ekonomikoaren hobekuntzara eta inguruko gizarte proiektuen garapenera bideratuz (auzoa, herria, hiria...).

Irudian, Caritas Bizkaiak garatu eta babesten dituen gizarte ekonomiako enpresak agertzen dira:

- Arropa, zaintza (**Zaintzalan**), garbiketa eta abarren enpresa taldea **Koopera**
- Catering: **Lapiko**
- Eraikuntza eta mantentze-lana: **Procoman**
- Bidezko merkataritzako produktuak: **Kidenda**
- Nekazaritza ekologikoko otzarak, kontsumo taldeen bidez: **Biozaki**
- Banka etikoa: **Fiare**
- Gainera, beste sektore batzuetako enpresak ere aurki daitezke REAS sarearen Merkatu Sozialean (*Red de Economía Alternativa y Solidaria*), hala nola aseguruak, marketina eta komunikazioa, ikus-entzunezkoak, osasuna, heziketa, aholkularitza, ikerketa, teknologia berriak, higiezinak, finantzak...

DEFINIZIOAK:

Ekonomia soziala pertsonak, ingurumena eta garapen iraunkorra aintzat hartzen dituen ekonomia-ikuspegia da.

Enplegu inklusiboa: enplegua lortu nahi duten pertsona guztiei aukera ematean datza, lan-eremu duin batean baldintza bidezkoak garatuz.

Aurkitu ezazu zazpi desberdintasunak.

